

2022ko MEMORIA

LABURPENA



Munduko Medikuak nazioarteko elkarte humanitario eta boluntario bat da. Guztiok osasunerako dugun eskubidea gauzatu dadin lan egiten du, eta bereziki jarduten du hala izan dadin pobrezia egoeran, genero desberdintasunean eta gizarte bazterketa egoeran bizi direnen edo giza krisien biktima direnen artean. Eta hori lortu nahi du, osasun arretaren, salaketaren, testigantzaren eta ekintza politiko eta sozialaren bidez.

1980 Médecins du Monde Frantzia sortu zen.

1990 Médicos del Mundo Espainia eratu zen.

1995 Munduko Medikuak Euskadi sortu zen.

Munduko Medikuen Nazioarteko Sareak

17 ordezkariak ditu guztira, Alemanian, Argentinan, Belgikan, Kanadan, Espainian, Estatu Batuetan, Frantzian, Grezian, Italian, Japonian, Luxenburgon, Holandan, Portugalen, Erresuma Batuan, Suedian, Suitzian eta Turkian. Helburu komun bat dute horiek guztiek: talde ahulenei osasun arreta ematea eta bidegabekeriaren kausak eta horien erantzuleak salatzea.

Garapenerako lankidetzaren eremuan lan egiten dugu, epe luzeko proiektuen bitartez, eta herrialde bakoitzeko osasun egituraren txertatzen ditugu proiektu horiek.

Ekintza Humanitarioari dagokionez, gerrak, gaixotasunek edo hondamendi naturalek kaltetutako lekuetan bertan aritzen gara, premiaz.

Munduko Medikuak elkartearen egoitza tokian tokiko **kolektibo ahulekin** ere jarduten da, bereziki osasun sistema publikoa erabiltzeko zailtasunak dituztenekin. Boluntariotzaren

konpromisoaren bidez eta beste gizarte mugimenduekin batera, kontzientzia kritikoak sortzeko prozesuak bultzatzen ditugu, gizarte aldaketarekin konprometitua den herritar multzo globalari begira.

GARDENTASUNA

Bazkideek zuzendutako elkarte gara. Bazkide horiek borondatez parte hartzen dute, elkarteari ekonomikoki eusten laguntzen diote, eta erakundearen ekintzei buruzko erabaki estrategikoak hartzen dituzte.



ARRETA ETA SALAKETA

Eskubideak urratu zaizkien pertsonen arreta emateaz gain, bidegabekeriak eragiten dituzten arrazoiak salatzen ditugu, eta gobernuari presio egiteko ekintzak sustatzen ditugu, egoera horiek zuzentzeko. estas situaciones.

NOR GARA

MUNDUKO MEDIKUAK HONAKO HAUEK OSATZEN DUGU

64

BAZKIDE
(38 emakume
eta 26 gizon)

135

BOLUNTARIO
(95 emakume
eta 43 gizon)

12

PERTSONA
KONTRATUPEAN
(8 emakume
eta 3 gizon)

1 288

EMAILE
FIDELITZATU

62

ERAKUNDE
LAGUNTZAILE
(30 publiko
eta 27 pribatu)



📷 Mota guztietako genero indarkerien aurkako sentsibilizazioko topaketa, emakumeen genitalen mutilazioa barne. Senegal.

Testuinguru humanitarioa

2022. urtean zabaldu egin dugu gure jarduera Araban, arreta soziosanitarioko zentro berri bat irekiz, prostituzioan/ salerosketan esku hartzeko lerroa ireki dugu eta Bilboko eta Barakaldoko udalerrietan gure lan komunitarioa finkatu dugu.

Aurten, COVID-19aren pandemiaren amaieraren lekuko izan gara; harekin, ikusi dugu nola areagotu den desberdintasun-arrakala populazio ahulenentzat. Egoera hobetu beharrean, egoera ahulenean dauden pertsonen zaurgarritasuna handitu egin da.

Gizarte-eraldaketako eragile garen aldetik, aktiboki parte hartzen dugu, gure esku-hartze guztien bidez, osasunerako eskubidea urratzen duten arau, politika eta gizarte-jarduerak ezabatzen.

Alde horretatik, lanean jarraitzen dugu pertsona guztien osasunerako eskubide eraginkorra bermatzeko, eta injustizia eta desberdintasuna eragiten dituzten gizarte-egiturak eraldatzen laguntzeko. Zoritxarrez, oraindik ere beharrezkoa da osasunerako eskubidea aitortuta ez duten pertsonen arreta ematea. Egoera honek Gasteizen kontsulta mediko eta sozial berri bat martxan jartzera behartu gaitu, Bilbon duela 25 urte baino gehiagotik dagoenari batzen zaiona.

Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzaren bidez, herritarrentzako hezkuntza-estrategiak garatzen ditugu, erantzukizunen titular

direnez gero, eta pertsonak eta subjektuak ahalduntzeko eta errealitatea eraldatzen laguntzeko baliagarri den pentsamendu kritikotik hezten ditugu. Eskubideen urraketak agerian uzteko eta frogatzeko ekintzen bidez, ikastetxeetan esparru formalean heziz, gizarte zibilarekin eremu informalean heziz, bai eta sarean lan eginez ere, eragin politikoko ekintzak eta herritarrak gizarte-eraldaketarantz mobilizatzeko ekintzak garatzen ditugula.

Politika- eta gizarte-esparruetako polarizazio-prozesu baten lekuko gara. Mundu osoan gero eta zabalduago dagoen ultraeskuin batek sortutako beldur xenofobo, arrazista, homofobo eta matxistaren diskurtsoaren aurrean, euskal gizartearen ezaugarri izan diren balioak (elkartasuna, ekitatea, konpromisoa, koherentzia, barneratzea eta errespetua) defendatzeko eta eredugarri izateko eskatzen diegu arduradun politikoei. Ildo horretatik, aurten ere aurrerapauso bat eman dugu, eta Zurrumurruen Aurkako ZAS! Euskal Sarearen lehendakariordetza onartu dugu; horretan, eragile sozial eta instituzionalekin batera, gizartea sentibilizatzeko estrategia bat garatzen dugu, diskriminazioa eta xenofobia prebenitzeko, bizikidetzak hobetzeko eta kultura-antiztasunaren aukerak aprobetxatzeko.

Nazioarteko lankidetzarako gure programen bidez, injustiziak eta desberdintasun sozialak hemen eta beste herrialde batzuetan eragindako ondorioei erantzuten dieten eruedetara jo nahi dugu. Nazioarteko

URTEAREN AZTERKETA



lankidetzaz-politikak hobetzeak ez du arriskuan jartzen ez gizarte-politikarik ez gure eskubideetako bakar bat ere. Eta politika horiek ere arrazoiak identifikatu eta salatzea bideratu behar dira.

Gero eta nabarmenagoa da tokikoaren eta globalaren arteko harremana. Euskadin, migrazio-prozesu gogorren ondorioz, milaka pertsonak zeharkatzen dute gure lurraldea Europako herrialdeetara, Frantziarekiko mugako igarobidearen bidez. Beste batzuek geratzea erabaki dute, eta erronka handia da gizarte gisa harrera erraztea. Gure migrazio- eta bizikidetzaz-programek helburu argia dute: elkarrekin lan egitea biztanle migratuekin eta autoktonoekin.

Erronka-garaia da. Euskadiko erakundea garenez, kanpoan erronkak onartu behar ditugu, gero eta nabarmenagoa den desberdintasun-arrakalagatik eta erakunde soziosanitario gisa dugun erantzukizunagatik.

Eta geure barruari dagokionez ere bai, Plan Estrategiko berria eginez (gure esku-hartzeari argi asko emango diona), prostituzioan dauden eta salerosketaren biktima diren pertsonak Gizarteratzeko eta Laneratzeko lehen plana abian jarritz, eta garatzen ari garen gainerako programak finkatuz.

Egoitza autonomikoetan, azken urteotan lanean ari gara lurraldetasuna erakundearen xedean erdigunean jartzeko, eta, hartara, antolaketa arinagoa, efizienteagoa eta dinamikoagoa izan dadin. Lantalde espezifikoak sortuta, erantzun bateratuak eta harmonikoak monitorizatu eta bilatu ditugu, gure programek lurralde guztietan duten esku-hartzeari koherentzia emateko.

Munduko Medikuak erakundearen ildo estrategikoen artean, osasunerako eskubidearen aldeko herritartasun aktiboa eraikitzen laguntzea nabarmentzen da. Horretarako, ekintza-ildo nagusiak hauek dira: giza eskubideen inguruko herritartasun kritikoa sortzea sustatzea, bereziki osasun globalerako eskubidea, eta herritarren aktibismoa eta mobilizazioa sustatzea, gizarte-eraldaketa bultzatzeko.

Prozesu hori gizarte-mobilizazioaren bidez sustatzen du Munduko Medikuak erakundeak, eta honako ildo nagusi hauek ditu: garapen asoziatiboa, sentsibilizazioa eta gizarte-eraldaketarako hezkuntza.

GARAPEN ASOZIATIBOA

Munduko Medikuak Euskadiren iritzi, **boluntarioritza** gizartearen eta herritarren parte-hartzerako bide gisa hartzen du, gizartearen eraldaketa lortzeko beharrezkoa, betiere osasun globalerako eskubideari begira, arrazismoaren aurkako borrokaren, generoaren eta sexu-aniztasunaren ikuspegiarekin. Honako helburu hauekin:

Euskal herritarrei zuzendutako sentsibilizazio-ekimenak bultzatzea, borondatezko ekintzaren eta parte-hartze sozialaren balioaren inguruan, boluntarioen balioa ikusaraztea eta aintzat hartzea sustatuz.

Boluntarioen trebakuntza eta garapena sustatzea, esku-hartze sozialak Euskadin dituen erronken aurrean, erakunde, plataforma eta lan-sareetan ordezkaritza izan dezatela erraztuz. Digitalizazioa, teknologien erabilera eta

sare sozialak bultzatzea, komunikaziorako, konexiorako eta borondatezko ekintzarako irisgarritasunerako tresna gisa.

Aurten, Gizarte Mobilizazioko, Garapen Asoziatiboko eta Komunikazioko taldeekin lan egin da, **Izan boluntario, osasunaren alde / Voluntarízate por la salud** kanpainarako ikus-entzunezko materialak diseinatzen eta egiten, boluntarioen balioa sustatzeko, bereziki Arabako gizarte- eta osasun-arloan, Gasteizen dugun ordezkaritza berria bultzatzeko, gizarte-balioak sustatzeko eta gizarte-arloko boluntarioen lana aintzatesteko eta ikusarazteko, beste pertsona batzuentzako erreferente gisa.

[“Izan boluntario, osasunaren alde” kanpaina, 2022](#)

SENTSIBILIZAZIOA

Gure sentsibilizazio ekintzak eta jarduerak era askotako gaiei buruzkoak dira, Giza Eskubideen inguruko herritar kritikoa sortzera bideratuak; bereziki, sexuaren eta ugalketaren alorreko osasunari eta eskubideei dagokienez. Azpimarratzekoa da 2022an egindako lan etengabea, emakumeen aurkako indarkeriaren funtsezko aldaeren sentsibilizazioan eta prebentzioan. Aldaera horien artean daude honako hauek:

Emakumeen Genitalen Mutilazioa (EGM).

Gizarte- eta osasun-arloko profesionali prestakuntza eman zaie, eta gizon eta emakume migratzaileekin tailerrak egin dira, batez ere EGM kasuak ugariak diren herrialdeetakoekin, eta *Nire borroka gure borroka* argazki-erakusketarekin sentsibilizazio-jarduerak egin dira.

Pertsonen Salerosketa, bereziki andreena eta neskena, sexu-ustiapenerako. Gizarte- eta

GIZARTE-MOBILIZAZIOA



osasan-arloko profesionalentzako, eta, oro har, herritar guztientzako tailerrak egin dira, aurrez aurre nahiz online.

Gure helburuak lortzeko, funtsezkoa da sareko lana egiten jarraitzea maila guztietan: tokikoa, eskualdekoa, estatukoa eta Europakoa. Nabarmentzekoak dira, besteak beste, Estatuko Libres de MGF y Otras Violencias Machistas sarean, Europako END FGM sarean, Salerosketaren aurkako Espainiako Sarean eta Harresiak Apurtuz elkartearen laguntza-mahaian izandako parte-hartzeak.

Andreen eta nesken sexu-ustiapenerako salerosketaren aurkako koordinazioa Emakunderekin, bai eta Euskadiko Pobreziaren eta Gizarte Bazterketaren aurkako Europako


Sarearekin, Zurrumurruen Aurkako ZAS! Euskal Sarearekin, GKE-en Koordinakunderekin ere.

SENTSIBILIZAZIOA

8 prestakuntza tailer osasan-, gizarte- eta -hezkuntza-arloko profesionalentzat

5 erakusketa

2 jardunaldi eta/edo mahai-inguru

 [1] 2022an Deustuko Unibertsitateko Ingeniaritza Fakultatean proposatutako lanen aurkezpena. [2] EGM tailerra Txurdingako prestakuntza zentroan. 2022ko urtarrilaren 28a Bilbo.

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza (GEH) pentsamendu kritikoa indartzera bideratutako prozesua da; gizarte-eraldaketarekin konprometitua eta arduratsua den gizarte zibila eraikitzea du xede, pertsona ahaldunduak eta eskubideen urraketa kontzientek sustatuz, justizia, ekitatea eta aniztasuna oinarri hartuta.

GEH hainbat dimentsiotan lantzen dugu: hezkuntza-esparru formalean, informalean eta ez-formalean, sentsibilizazioa eta eragin politikoa; etengabeko ikaskuntza sustatuz, gizarte-oinarriaren eta eskubide, erantzukizun eta betebeharren titular diren pertsonen gaitasunak sustatzeko, hala nola eskubideen ikuspegitik gizartea eraldatzen laguntzen duten subjektu protagonistak. Eta 2022an hainbat proiekturen bidez inplementatu genuen:

GENDER: proiektuaren bigarren fasea: nerabezaroan eta gaztaroan indarkeria matxisten eta ziberindarkerien aurrean tratatu onak lantzeko hezkuntza-proposamena. Aurten, Bilboko San Adrián BHI eta Maristetan gauzatu da. Ikasleen ahalduntzea, parte-hartze soziala eta genero-desberdintasunen, -estereotipoen eta -rolen aurkako eragin politikoa bultzatu nahi ditu, bereziki sare sozialen erabilera eta berdintasunean oinarritutako eredu sozioafektiboak sortuz,

indarkeria matxista lokala eta globala prebenitzeko.

MUNDU BAT MUGIMENDUAN, ESKUBIDE KONTUA: arretagunea migrazio-prozesuak eragiten dituzten kausetara zabaldu nahi izan du proiektu honek, eta aniztasunaren, migrazioaren eta babesaren tratamenduan generoaren eta giza eskubideen ikuspegia txertatu. Horretarako, etorkinei eta errefuxiatuei buruzko estereotipoei eta aurreiritziei aurre egiteko tresnak eman dizkiegu Deustuko Unibertsitateko eta Durango, Eibar, Zumarraga eta Legazpiko Helduen Hezkuntza Eskoletako (HHE) ikasleei, eta, hala, kontzientzia kritikoa sortu dugu.

AFRIKAN MURGILTZEN: hezkuntza-proposamena, Afrikari buruzko imajinarioak Euskadiko bigarren hezkuntzako hezkuntza-komunitateekin berrikusteko, kontinente horrekiko begirada berri eta positiboa emateko, egungo munduaren interdependentziari eta egungo errealitateen arteko loturari buruzko ikuspegi dekoloniala eskainiz. Parte-hartze soziala indartuz, arrazismoa eta xenofobia sustatzen dituzten aurreiritzi eta estereotipoen aurrean.

Informazio gehiago eta proiektu hauei buruzko material didaktikoak:

www.semillaseducativas.org

GIZARTE- ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA

GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA

3 proiektu ikastetxe, institutu eta unibertsitateetan

30 irakasle

380 ikasle

Guraso Elkarteetan **30** ordezkari

[1] eta **[2]** *Cuerpos y disidencias frente a las Ciberviolencias (Gorputzak eta disidentziak Ziberindarkerien aurrean)* kartela eta jardunaldia. **[3]** *African Murgiltzen* jardunaldia. **[4]** *El Juego de los Buenos Tratos. Proyecto Gender (Tratu Onen Jolasa. Gender Proiektua)*.

[1]

JORNADA

CUERPOS Y DISIDENCIAS FRENTE A LAS CIBERVIOLENCIAS

19 NOVIEMBRE 2022
9.30H A 14.30H
HIKA ATENEO
MUELLE DE IBEÑI, 1. 48006 BILBAO



DESCOLONIZANDO • DESEOS DIVERSIDAD SEXUAL • SEDUCCIÓN ERÓTICA • EMOCIONES • SABERES

INSCRIPCIONES AQUÍ



[3]

African Murgiltzen:

Afrika (Bir) kontatzen

JARDUNALDIA

ASTEAZKENA, 2022KO MARTXOAREN

30a 17:00etatik 20:00etara

Online, Zoom plataformaren bidez
<https://cutt.ly/8SEHAKH>




Gizarteratze-arloaren helburua da egoera ahulean dauden pertsonen osasunerako sarbidea lortzea. Alde horretatik, gure lan-esparrua bi biztanle-multzotan banatzen da: gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden atzerritarrak eta mendekotasunen esparruan dauden pertsonekin lan egiten duten profesionalak.

Immigrazioaren arloan eta Esku-hartze Komunitarioko, Gizarteratzeko eta Bizikidetzako programen bidez, esku hartzeko zenbait ildo lantzen ditugu.

Alde batetik, **HARRERA** ildoan, atzerritarrak harrera-gizartean sartzea sustatzen dugu, arreta soziosanitarioko zentroaren (CASSIN), prestakuntzako guneen, informazioen, laguntzen, banakako laguntzaren eta abarren bidez. Era berean, erantzukizunen titularrekin esku hartzen dugu, atzerritar jatorriko herritarrenganako jarrerak eta pertzepzioak eraldatzeko.

Bigarrenik, **BIZIKIDETZA** ildoan lantzen dugu, biztanle autoktonoen eta atzerritarren arteko bizikidetzaz errazteko eta sustatzeko, kulturen arteko ezagutzan, ulermenean eta errespetuan oinarrituta, bereziki hezkuntzaren esparruan eta gazteen artean. Halaber, ezagutza eskuratzea sustatzen eta indartzen dugu, osasun komunitarioa hobetzeko, osasunaren gizarte-determinatzaileak landuz.

Era berean, **GENERO** ildoaren alde egiten dugu, genero-berdintasuna eta sexu-aniztasunarenganako errespetua sustatzeko.

Alde horretatik, helduekin nahiz gazteekin lan egiten dugu, belaunaldi berri ekitatiboagoa


prestatzeko, gizonen taldeekin, emakumeen taldeekin eta talde mistoekin.

Beste lan-ildo bat **BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO BORROKA** da, jatorria atzerrian dutenenganako diskriminazioko jarrerak eta pertzepzioak murrizteko xedez, gazteei eskainitako hezkuntza-arloko prestakuntza-jardueren bidez; elkar ezagutzeko jardueren eta gizarte-sentsibilizazioaren bidez, eta zurrumurruei eta estereotipoei hezkuntza-eremu formal eta informaletik helduta, erantzukizunen titularrekin lan egiteari utzi gabe.

PARTE-HARTZE ildoan, jatorria atzerrian dutenen elkarrekin, bereziki emakumeen elkarrekin, bizitza asoziatiboa sustatu eta indartu nahi duena, gizarteratzeko dinamikak sortzeko.

Azkenik, **GIB/HIES**aren prebentzioan lan egiten dugu, prestakuntza-tailerren bidez eta proba azkarrak eginez.

Mendekotasunen arloan, kontsumoarekin lotutako arriskuak eta kalteak murrizteko lan egiten dugu, prestakuntza-eremuen bidez mendekotasunen arloan lan egiten duten profesionalekin.

-
-  [1] III. Eskola Antirrazista Birtualaren kartela. [2] CASSINeko langile soziosanitarioren trebakuntza. [3] Maskulinitasunak birpentsatzeko jardunaldia. [4] Etorkinei arreta soziosanitarioa emateko kontsulta. [5] Kirol-arloko arrazismoari eta eguneroko arrazismoari buruzko jardunaldia. [6] Kafea eta Tea lantegia. [7] Osasun Mentaleko tailerra. [8] Sexu-eskubideen Sustatzaileen tailerra.

GIZARTE- INKLUSIOA

IMMIGRAZIOA

1 555 onuradun

mediku-konsultan artatutako

963 pertsona

gizarte-konsultan artatutako

850 pertsona

882 arreta informazio, orientazio eta babesaren loan

arlo soziosanitarioan

prestatutako **90** pertsona

146 prestakuntza-jarduera

907 parte-hartzaile tailerretan eta jardueretan

4 500 ordu esku-hartze

% 0,87 emakume

60 nazionalitate

[1]



III ESCUELA ANTIRRACISTA VIRTUAL

LOS VIERNES DE 18:00 A 19:00

DINAMIZA: MARRA JUNIOR



@MDM.EUSKADI

3, 10, 17 JUNIO
1, 8, 15, 22 JULIO
5, 12, AGOSTO
2, 9, 16 SEPT.

VUELVE LA III ESCUELA ANTIRRACISTA 2022

VIRTUAL




[3]

22 // 11 // 2022
17:00 - 20:00h

INTERVENCIONES CON HOMBRES //

REPENSAR LAS MASCULINIDADES DIVERSAS DESDE UNA PERSPECTIVA DE RAZA Y DE GÉNERO

PONECIAS //



CHAIKHA BOUKHARISA: Profesora de investigación social de la Universidad de Sevilla. Investigadora en género, raza y migración. Asesora de políticas públicas. Asesora de comunicación. Asesora de diversidad.

ALVARO RUIZ: Investigador en el ámbito de la diversidad sexual y de género. Investigador en género, raza y migración. Asesora de políticas públicas. Asesora de comunicación. Asesora de diversidad.

JOHAN MUJAL: Experto en diversidad sexual y de género. Investigador en género, raza y migración. Asesora de políticas públicas. Asesora de comunicación. Asesora de diversidad.

JOSFINA CORTÉS: Investigadora en el ámbito de la diversidad sexual y de género. Investigadora en género, raza y migración. Asesora de políticas públicas. Asesora de comunicación. Asesora de diversidad.

ALVARO PADILLA: Investigador en el ámbito de la diversidad sexual y de género. Investigador en género, raza y migración. Asesora de políticas públicas. Asesora de comunicación. Asesora de diversidad.

MARRA JUNIOR: Investigador en el ámbito de la diversidad sexual y de género. Investigador en género, raza y migración. Asesora de políticas públicas. Asesora de comunicación. Asesora de diversidad.

JORNADA //




[5]

En ocasión del 21 de marzo, Día Internacional para la Eliminación de la Discriminación Racial

RACISMO EN EL AMBITO DEPORTIVO Y RACISMO COTIDIANO

RACISMO EN EL AMBITO DEPORTIVO



AURI LORENA BOKESA ABIA



ASMAE OURDI EL ALAOU



ELSA MOUTHE



NAJARA OBIANG OLSAO

RACISMO COTIDIANO



GUILLEM BALBOA BUIKA



TAMARA CLAVERÍA JIMÉNEZ



SOUKAINA SOUSSI LAHRAOUI



QUINNDEY AKEJI

25 de Marzo 2022 a las 17:00 a 20:00h
BBK Kuna Urazurrutia Kalea, 3, Bilbao




Munduko Medikuak erakundeak Arabako esku-hartzea zabaldu zuen 2022an, eta bulego berri bat eta Etorkinentzako Arreta Soziosanitarioko Zentro bat ireki ziren, Munduko Medikuak erakundearen misioa lurralde horretan hedatzeko, zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonentzat osasunera sarbidea izateko eskubidea gauzatzu. Talde, elkarte eta profesional soziosanitarioekin sarean lan egiten dugu, gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen osasunerako eskubidea bermatzeko xedez.

GIZARTE-INKLUSIOA ildoan garatu dugu, herritarren parte-hartzea sustatzea eta arabarrentzako eta jatorri atzerritarreko pertsonentzako lankidetzaren gunea izatea helburu duena, bereziki emakumeentzat, gizarteratzeko dinamikak sortuz.

HARRERA ildoan, atzerriko pertsonak harrera-gizartean integratzea sustatzen dugu, arreta soziosanitarioko zentroaren bidez (CASSIN), prestakuntza-eremuak, eremu informatiboak, laguntza, banakako arreta, etab. Halaber, ezagutza eskuratzea sustatzen eta indartzen dugu, osasuna hobetzeko, osasunaren gizarte-determinatzaileak landuz.

Era berean, **GENERO-BERDINTASUNA**ren eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa sustatzearen alde egiten dugu, arreta berezia jarri emakumeen mutilazio genitala prebenitzeko. Alde horretatik, biztanleria orokorrarekin eta praktika egiten den herrialdeetatik datozen pertsonekin lan egiten dugu, bai eta osasun-langileekin eta hezkuntza-langileekin ere.

Beste lan-ildo bat **GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA** da; horretan, pentsamendu kritikoa sortu nahi dugu herritartasun aktiboa eta solidarioa sortzeko, kontzientzia kritikoa eta konstruktiboa duena, gizartea giza garapen iraunkorrerantz eraldatzeko. Zehazki, hezkuntza formaleko eta ez-formaleko eremuetan atzerritarrak baztertzearen aurkako borroka lantzen dugu.

 [1] Boluntariotzaren Azoka Gasteizen.

[2] Boluntarioekin bilera Emakumeen Genitalen Mutilazioari buruz. [3] Emakumeen Genitalen Mutilazioaren aurkako Solasaldiaren kartela.

[4] Munduko Medikuak Arabaren material grafikoak.

[5] Osasun Mentaleko tailerra.

ARABA IMMIGRAZIOA

36

arreta soziosanitario

76

parte-hartzaile osasuna sustatzeko ikastaroetan

36

pertsona artatuta gizarte-lanean

arlotzako soziosanitarioan prestatutako

21 pertsona

ARABA

Aurten, Senegal eta Mozambiken izan du bultzada nazioarteko lankidetzaren alorrak, euskal finantza-erakunde publiko eta pribatuen laguntzarekin.

Sarean lan egiteko eta eragin politikoa lortzeko xedez, Bilboko Udaleko Lankidetzaren Kontseiluan parte hartzen dugu, Lankidetzarako Euskal Agentziaren eta gainerako administrazio publikoen lehentasun sektorialak eta geografikoak dituzten berariazko lan-mahaietan.

Munduko Medikuek Senegalen dago 2003tik. Herrialdeko hainbat eskualdetan lan egin du, beti ere Senegalgo gizarteari osasunerako eskubidea urratzearen kausak murrizten laguntzeko, osasun-sistemaren sarbidean laguntzeko, osasun-sistemaren sarbidean desberdintasunak dituen herrialdea baita.

Senegal Mendebaldeko Afrikan azaleratzen ari diren ekonomietako bat da, baina osasun-gastu publikoa herrialdeak hartu dituen nazioarteko konpromisoen azpitik dago oraindik, bereziki Abujako Deklarazioaren azpitik. Osasun-laguntza jasotzeko, zenbait faktore sozioekonomiko hartu behar dira kontuan, besteak beste, pertsona bakoitzaren erosteko ahalmena. Oztopo ekonomiko horren ondorioz, biztanleriaren zati handi bat babesik gabe geratzen da. **Osasuna pertsona askok ezin eskuratu duen luxua da oraindik ere.**

Horrela, hiru ardatz estrategikotan lan egiten dugu:

- **osasun sistema publikoa indartzen, kalitateko zerbitzuetara iristeko aukera unibertsala lortzeko**
- **desberdintasunak ezabatuzeko osasunerako eskubidea modu aktiboan gauzatzeko orduan**

- **herritartasun aktiboa eta kritikoa sustatzen**, bere oinarritzko eskubideen defentsan protagonista izango dena, talde ahulei eta baztertuei arreta berezia emanez.

Dakarko eta Kédougouko eskualde medikoetan gaude, arlo hauetan: sexu- eta ugalketa-osasuna, genero-indarkeriaren prebentzioa, haurren osasuna, bereziki zaurgarriak diren populazioen osasuna eta osasun-estaldura unibertsala.

Esku-hartzearen zati bat **Dakarko hiri-inguruko eremuetan** egiten da. 2020an, bulego bat ireki genuen Kédougoun, esku-hartze eremua zabaltzeko, osasun-adierazle okerrenak dituen eskualde bati lagunduz. Oinarri horretatik bi esku-hartze hasi dira: bata, **genero-indarkeria desagerrarazteko, eta, bestea, COVID-19aren eragina murrizteko**, Senegal eta Ginea Konakry arteko mugan. Dakarko eskualde medikoan, 2020an eta 2021ean pandemiari emandako erantzunean lagundu genuen, esparru hauetan: arriskuak murrizteko komunikazioa, infekzioa kontrolatu eta prebenitzea, arazoari ekiteko modua eta tratamendua hobetzea eta koordinazio-sistemak indartzea.

Mozambiken Munduko Medikuek 2000. urtean hasi zen lanean, Matola barrutian (Maputo probintzian) uholdeek eragindako biztanleei zuzendutako larrialdiko osasun-arretarako proiektu baten bidez. Ondoren, Delgado lurmuturreko hainbat barrutitara zabaldu zen. Gaur egun, erakundeak Matolan egiten du lan, batez ere sexu- eta ugalketa-eskubideen arloan eta genero-indarkeriarenean, Osasun eta Genero, Haurtzaro eta Gizarte Ekintza Ministerioen ildo estrategikoei jarraituz.

NAZIOARTEKO LANKIDETZA



Ndavelako Laguntza Integraleko Zentroari eta Nhamaiako genero-indarkeriatik bizirik atera direnentzako harrera-etxeari laguntza ematen zaie, Maputoko Genero, Haurtzaro eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza Probintzialarekin koordinatuta, indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko sektore anitzeko mekanismoari jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema ezartzeko.

GAUZATZEN ARI DIREN PROIEKTUAK

Emakumeen generoan eta emakumeen genitalen mutilazioan oinarritutako indarkeria eta emakumeen eta adingabeen osasunean duen eragina murriztea, Sarayako eta Kédougouko (Senegal) osasun-barrutietan.

Iraupena:

2020ko irailak 15 – 2023ko uztailak 17.

Zuzeneko onuradunak:

111 602 pertsona.

Zeharkako onuradunak:

Kédougou Barrutiko biztanleak.

Aurrekontua:

642 807 €.

Yeumbeuleko Osasun Barrutian, Dakarren (Senegal), 5 urtetik beherakoen osasun nutrizionaleko zerbitzuak tratatu eta lantzeko osasun-sistema indartzea.

Iraupena:

2022ko irailak 15 – 2023ko ekainak 14.

Zuzeneko onuradunak:

11 137 haur.

Zeharkako onuradunak:

11 512 pertsona.

Aurrekontua:

70 000 €.

Dakarko eta Mbourko (Senegal) herri nagusietako emakumeak osasun-zerbitzuak eskuratzea eta haien ongizate ekonomikoa eta soziala sustatzea.

Iraupena:

2022ko abenduak 15 – 2023ko abenduak 14.

Zuzeneko onuradunak:

1 112 emakume.

Zeharkako onuradunak:

1 132 pertsona.

Aurrekontua:

100 000 €.

Infuleneko administrazio-postuko osasun-unitateen gaitasunak indartzea, Ugalketako Osasun Sexualeko zainketa eta zerbitzuen arloan diharduten langileak barne (Mozambike).


Iraupena:

2022ko azaroak 1 – 2022ko abenduak 31.

Zuzeneko onuradunak:

41 595 pertsona.

Aurrekontua: 7 000 €.

 Generoari eta genero-indarkeriari buruzko prestakuntza irakasleentzat, Kédougou eskualdean, Senegal.

Munduko Medikuak erakundearen Aliantzen sailetik, gizarte osoari eta, bereziki, euskal enpresa-sareari dei egiten diegu Euskadin osasunaren aldeko lankidetzaz-aliantza bat hasi eta mantentzera, gure proiektu guztietan dauden osasuna, hezkuntza, berdintasuna eta garapen iraunkorreko beste helburu batzuk bermatzeko gizarte-konpromisoarekin.

Eta elkartean parte hartzen duten pertsonak eta erakundeak, sarean lan egiten dutenak edo Euskadin laguntzaile direnak, **gizarte eraldaketa-eragile gisa babesten eta ekarpenak egiten dituztela jakinaraztera** animatzen ditugu, beren interes-taldeak mobilizatzeko, desberdintasuna markatzeko, bidegabekeriak ikusaraziz eta horiek dauden sektore eta lurraldeetan dituzten eraginei eta erronkei aurre egiteko modua adieraziz.

AURTENGO ERRONKAK MUNDUKO MEDIKUAK ERAKUNDEARENTZAT

COVID pandemiaren zama daramagu oraindik, Ukrainako gerraren drama ez da amaitu, eta hondamendi naturalena ere ez. Klima-aldaketak kalte larriak eragiten dizkie zaugarritasun handieneko lurralde eta biztanleei.

Gatazka armatuen kopuruak eragin handia du bizi- edo biziraupen-baldintzetan, giza talde zabaletan eta biztanleen mugimendu behartuetan.

Egoitza guztietatik, gure lanak harrera, bizikidetzaz, genero, berdintasun, diskriminazioaren aurkako

borroka eta parte-hartzearen ildoak garatzen ditu populazioarentzat.

MUNDUKO MEDIKUAK ERAKUNDEAREN ALIANTZAK EUSKADIN

“2022k espero baino hazkunde orokor handiagoa izan du, baina desazelerazioz joera argiarekin, bai jardueran, bai enpleguan. Errentagarritasun txikiko eta kostu handiko agertoki bati egin behar diogu aurre, energia-krisiaren, Ukrainako gerraren eta prezioen igoeraren ondorioz, bai familientzat, bai enpresentzat...” (Iturria: Isabel Busto Confebaskeko presidentearen artikulua, Enpresa Estrategiarako. 2023/01/04). [2023: gutxiagotik gehiagora | Confebask](#)

2022an, enpresetatik eta fundazioetatik datozen dohaintzen zenbatekoa %19,56 hazi da; horrek adierazten du, egoera hori eta munduko gatazkek gorabehera, indarberritze txiki bat izan dela eta aliantza berriak sartu direla. **23 erakunderen gizarte-konpromisoari esker,** Euskadiko tokiko programak abian jarri eta jarraitu ahal izan ditugu, **4 300 pertsona baino gehiagori** laguntzeko eta nazioarteko beste lankidetzaz-proiektu batzuei laguntzeko.

Aurten, ahalegin berezia egin dugu **Munduko Medikuak erakundearen Arabako bulego berrirako** lankidetzak bilatzeko. Horretarako, tokian tokiko aliantzak egiten saiatu gara, lurralde horretan gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden populazio zaugarrietatik

ALIANZAK ENTITATEEKIN ETA EKITALDIEKIN


hurbilago egoteko eta kolektibo, elkarte eta profesional soziosanitarioekin sarean lan egiteko, osasunerako eskubidea bermatzeko.

Dohaintza partikularrek ere gora egin dute, krisia gorabehera. Gorakada %35,99koa izan da, azken urteetan gelditu eta are atzera egin ondoren. Gainera, bide berrietatik egindako ekarpenak gehitu egin dira, hala nola Bizum, sare sozialak eta testamentu solidarioak, eskuzabaltasun handia elkartearikiko eta artatzen ditugun pertsonekiko.

Pandemiaren ondorioz, 2022an ere ez dugu izan gure boluntarioekin parte-hartze handia izan ohi duten **ekitaldi presentzialetan parte hartzeko aukerarik**; gure horiek, dirua biltzeko ez ezik, beti aprobetxatzen ditugu gure lanaren berri emateko, osasunerako eskubideari buruz sentsibilizatzeko eta gizartea eraldatzeko hezkuntza-tailerrak egiteko.

Eta **produktu, zerbitzu edo ikusgarritasun** bidezko dohaintzak sendotzen jarraitzen dugu, beste lankidetzak esparru batzuk, erakundearen gastuak aurrezteak dakartenak, eta euskal erakundeek eta gizarteak Munduko Medikuek egindako lanari emandako laguntza eta aitortza.

Sareko Lanari eusten zaio, aurrez aurreko lanaldietara itzuliz eta beste erakunde batzuekin lankidetzan arituz, lurraldean aliantzak egiteko.

 [1] Etorrintzako Laguntza Soziosanitarioko Zentro berri baten irekiera Gasteizen. [2] Aurrez aurreko eta telefono bidezko arreta, osasunerako sarbidea bermatzeko. [3] BBK Aliantza Kuna 2030 Kideak topaketa. [4] Munduko Medikuek erakundeak aliantzak egiten ditu 2030 Agendako helburuak lortzeko.

[1]

Centro de Atención Socio Sanitaria

SI NO TIENES TIS CASSIN VITORIA-GASTEIZ
Médicos del Mundo

Si tuvieras una necesidad médica y no tienes la Tarjeta Individual Sanitaria Puedes pedirnos cita a través de:

- araba@medicosdelmundo.org
- 653 994 567
- Sólo atendemos previa cita

Cantón de San Marcos, número 1 bajo.
En el Casco Viejo de Vitoria.

PROGRAMA Berakah
MUNDUKO MEDIKUEK
Vital FUNDACIÓN FUNDACIÓN



2022an, Munduko Medikuak erakundearen komunikazio-estrategia lantzen jarraitu dugu. Horretarako, pertsona guztientzako osasunerako eskubidea aldarrikatu dugu, gure lanaren bidez, eta zeharka, jarduera asistentzial, hezigarri, hezkuntzako eta politiko guztietan.

Arlo honen bidez, **aldizkako barne-komunikazioak** izaten ditugu gure garapen asoziatiboaren oinarriarekin, Munduko Medikuak erakundeko kide diren edo izan diren boluntarioekin, eta gure proiektuei buruzko informazio eguneratua jasotzen duten hainbat kanalen bidez; besteak beste, **Compartiendo/Partekatuz** aldizkako buletin elektronikoen bidez.

Kanpoko komunikazioak [web de Médicos del Mundo](#) bidez, Munduko Medikuak erakundearen sare sozialen bidez (Whatsapp / **Facebook** / **YouTube** / **Instagram**) eta hedabideekiko, elkarrekeko eta entitateekiko komunikazio elektronikoen bidez egiten dira.

Partekatutako edukiak **osasunerako eskubideari buruzko errebindikazio-kanpainak** izan dira, batez ere pandemiarekin, txertaketa-kanpainarekin edo txertoen patenteen aurkako salaketarekin zerikusia dutenak; baita lehen mailako arretaren baliabiderik eza eta Osasun Unibertsalaren defentsa ere; Mediterraneoko krisia, Melillako sarraskia eta migrazio-politika salatu ditugu, paperik gabeko etorkinen erregularizazioa

eskatu dugu, eta Siriako egoerari buruz ohartarazi dugu, bai eta Gazakoari eta Saharako kanpamentuetakoei buruz ere. Garrantzi berezia izan du **Ukrainako gerrak** eta Munduko Medikuak erakundearen esku-hartzeak, ia 8 urtez herrialdean lan egin ondoren.

Munduko Medikuak erakundearen nobedadeak eta jarduerak ere zabaldu ditugu: **gure esku-hartzea zabaltzea Araban**; pertsona ahulentzat, elkarreentzat edo esparru sozio-sanitarioko profesionalentzat hainbat arlotatik antolatutako jarduerak; antolakuntzan giltzarri diren oroitzapenezko egunak direla-eta egindako ekintzak; esaterako, Hiesaren Nazioarteko Eguna, Emakumeen Genitalen Mutilazioaren Prebentzioarena eta Errefuxiatuaren Eguna.

Aipagarria da, berriro ere, **Eskola Antirrazistak** arrakasta handia izan duela hirugarren edizioan, Instagramen zuzenean emandako 12 saioetan zabalkundea eta parte-hartze handia izan baitu, eta bere gaitan erreferentzia diren pertsonen parte hartu dute.


Honako hauen berri ere eman dugu: **Jardunaldiak eta mugimenduak antolatzea eta horietan parte hartzea, hedabideetan agerpenak** Euskadiko osasun-erreferente gisa, sareko lana eta erakundearen kanpaina, lankidetzak edo ekimen solidarioak Munduko Medikuak erakundeak Euskadin egiten duen lana eta pertsona guztientzako osasunerako eskubidea babesteko.



KOMUNIKAZIOA ETA ERAGIN POLITIKOA

2022an, boluntarioen lana ikusarazten eta eskertzen jarraitu dugu, **Boluntariotzako Historietan** parte hartuz; gune horretan beren esperientzia partekatzen dute. Aurten garrantzi berezia izan dute **“Etorkinentzako Gizarte eta Osasun Laguntza Zentroa”** osatzen dutenen esperientziak, Munduko Medikiak erakundearen barruan pandemian egindako lanagatik.

Azkenik **Izan boluntario, osasunaren alde** kanpaina jarri da abian, borondatezko ekintzarekin eta sare asoziatibo dinamik baten garapenarekin herritar sentiberak eta aktiboak eraikitzea sustatzeko. Horretarako, euskal herritarrek esku-hartze sozialaren

esparruan borondatez parte hartzeko behar dituzten eremuak, jarduerak eta tresnak jarri dira. Bideo baten bidez, garrantzi berezia eman zaio Munduko Medikiak erakundeak Gasteizen duen ordezkari berriari, zeinak Arabako boluntarioen parte-hartzea indartu duen.

 [1] **Bilbao Basket Fundazioak Munduko Medikiak erakundeari egindako aitortza, Ukrainan egindako lanagatik.** [2] Maria José Arruti, CASSINeko mediku boluntarioa, Boluntariotzako Historiak kanpaina 2022. [3] Arabako zenbait boluntario, Emakumeen Genitalen Mutilazioaren aurkako erakusketa muntatzen. [4] “Izan zaitez boluntario, osasunaren alde” kanpaina.



IZAN BOLUNTARIO,
OSASUNAREN ALDE

VOLUNTARÍZATE
POR LA SALUD




Munduko Medikuek erakundearen jarduera guztia irizpide zorrotzen arabera ikuskatzen du GGKEk, zeinak misioa eta helburuak betetzen diren aztertzen baitu, bai eta funtsen jatorria eta haien erabilera ere. Jardueren eta

finantzaketaren gaineko informazioa Lealtad Fundazioari ere ematen zaio, azter dezan. Gainera, entitate pribatuek zein publikoek —eta gure balioek— kontuak gardentasun handienaz ematea eskatzen digute.

Gardentasuneko eta kalitateko gure zigiluak




2022KO EMAITZA



2022KO KONTUAK MUNDUKO MEDIKUAK

NON EGITEN DUGUN LAN



ELKARTASUNA



PARTEKATUKO DUGU?

¿COMPARTIMOS SOLIDARIDAD?



ENTITATE PRIBATUAK

Aero-Ferr (Bizkaia) ■ Asociación Beraca (Bizkaia) ■ Asociación Sunu Gaal ■ Bizkaia Gara ■ Cadvision (Bizkaia) ■ Cafés Baqué (Bizkaia) ■ Cafés La Brasileña (Araba) ■ Coca Cola European Partners Iberia (Bizkaia) ■ Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabalako Taldeen Koordinakunde ■ GGKEen Euskadiko Koordinakunde ■ Gurutze Gorria Bizkaia ■ Danobat Group (Gipuzkoa) ■ Deurbe Arquitectura (Bizkaia) ■ Ekin (Bizkaia) ■ Entrecanales Domecq e Hijos (Madril) ■ Bilbao Basket Fundazioa (Bizkaia) ■ Jayroa Hermanos Fundazioa (Bizkaia) ■ Mikel Uriarte Fundazioa (Bizkaia) ■ Banaketa Solidarioa Fundazioa (Bizkaia) ■ Susana Monsma Fundazioa (Bizkaia) ■ Ulma Fundazioa (Gipuzkoa) ■ Vital Fundazioa (Araba) ■ Gesducón (Bizkaia) ■ Gorka Nalda (Bizkaia) ■ Harresiak Apurtuz (Euskadiko Etorkinei Laguntza Emateko GKEen Koordinakunde) ■ Irizar (Gipuzkoa) ■ Kaiku (Bizkaia) ■ Maier (Bizkaia) ■ Maristak (Bizkaia) ■ Orona (Gipuzkoa) ■ Beste BI Plataforma Berakah Programa (Araba) ■ Repaspán (Bizkaia) ■ Pobreziaren eta Giza Bazterkeriaren Aurkako Europar Sarea Euskadin (EAPN Euskadi) ■

Red MigraCovid Sarea Eusko Jaurlaritza ■ Red Vasca Antirumores/ Zurrumurruen Aurkako Euskal Sarea (ZAS) ■ Salto Systems (Gipuzkoa) ■ Sareteknika (Gipuzkoa)

ENTITATE PUBLIKOAK

Eusko Jaurlaritzaren Lankidetzarako Euskal Agentzia ■ Dulantziko Udala ■ Bilboko Udala ■ Barakaldoko Udala ■ Guardiako Udala ■ Oiongo Udala ■ Aguraingo Udala ■ Durangoko HHE ■ Eibarko HHE ■ Legazpiko HHE ■ Zumarragako HHE ■ Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketarako Saila ■ Eusko Jaurlaritzaren Hiesaren Plana ■ Arabako Foru Aldundia ■ Bizkaiko Foru Aldundia ■ Gipuzkoako Foru Aldundia ■ Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea ■ EHUKo Medikuntza eta Erizaintzako Fakultatea Gipuzkoa ■ Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Immigratio Foroa ■ Osasunaren aldeko Euskal Foroa ■ Gurutzetako Ospitalea ■ BHI San Adrian (Bilbo) ■ Emakunderen Sexu-esplotaziorako pertsonen salerosketaren aurkako mahaia ■ Iragaitzako Pertsona Migratzaileak Hartzeko Erakunde arteko Koordinazio Mahaia

ESKERRIK ASKO!



¡GRACIAS!



NOLA LAGUNDU MUNDUKO MEDIKUAK

Munduko Medikuak pertsona guztiek osasunerako duten eskubidearen alde lan egiten duen elkarte da. 1995az geroztik du Euskadin ordezkari, eta gizarteratzearen, sentsibilizazioaren, eraldaketa sozialerako hezkuntzaren eta eragin politikoaren arloetan lan egiten du. Zure laguntzak bizitzak alda ditzake. Munduko Medikuak elkarteari lagunduz gero, pertsona ahulenei, baztertuei edo hondamendi naturalen, goseteen, gaixotasunen, gatazka armatuen edo indarkeria politikoaren biktimei osasunerako sarbidea hobetzen lagunduko duzu.

ZURE DENBORAREKIN EGIN ZAITEZ BOLUNTARIO!

Munduko Medikuak boluntario elkarte bat da, ekintzarako eta partaidetzarako gunea, eta bertatik bertara lagundu dezakezu errealitate bidegabea aldatzen. Boluntarioek osasun sistema publikorako sarbidetik baztertuta edo egoera zaurgarrian dauden pertsonen eskubideak defendatzeko jarduten dute eta mobilizatzen dira. Izaera solidarioa baduzu eta mundu zuzenago baten alde borrokatu nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan gure egoitzan. Zure zain gaude!



KUTXABANK

ES15 2095 0368 8091 0040 4807

DIRUAREKIN

Bat egin Munduko Medikuak erakundearekin, modu egonkorrean edo puntualean lagunduz. Hainbat erataria lagun diezagukezu: izendun txeke bat egoitzara posta bidez bidalita, banku transferentzia bat eginez gure kontura, Bizum bidezko ordainketa batekin, informazioa emateko mezu elektronikoa bat bidaliz. Deitu eta hitz egingo dugu!

GURE PROIEKTUAK BABESTUZ ETA ZABALDUZ

Gure lana ezagutu eta gure kanpainak zure kontaktuen artean zabaldu ditzazun gonbidatzen zaitugu. Zatoz Munduko Medikuak erakundera, bisitatu [Munduko Medikuak webgunea](#) eta gure sare sozialak. Jarrai gaitzazu [Facebook](#) / [YouTube](#) / [Instagram](#)-en; parte hartu, partekatu edukia eta bidali iruzkinak edo iradokizunak.



facebook.com/mundukomedikuak
instagram.com/mdm.euskadi



BIZUM 00559

MÉDICOS DEL MUNDO EUSKADI



**COMBATIMOS TODAS
LAS ENFERMEDADES,
INCLUIDA LA INJUSTICIA**



**GAIXOTASUN GUZTIEI
EGITEN DIEGU AURRE,
BAITA INJUSTIZIARI ERE**



Médicos del Mundo Euskadi

www.medicosdelmundo.org

MUNDUKO MEDIKUAK BILBAO

Bailén 1, etxabea. 48003 Bilbo

944 790 322

euskadi@medicosdelmundo.org

MUNDUKO MEDIKUAK ARABA

Antepara (Cubo) kalea 1. 01001 Gasteiz

653 994 567

araba@medicosdelmundo.org